

EGARA

Kostuen egitura

Gure proiektuaren kosturik garrantzitsuenak makinen fabrikazioa eta erosketa dira, izan ere, sentsoreak, pantailak, egitura eta softwarea garatzea edo eskuratzea da gastu nagusia. Horri gehitu behar zaizkio mantentze- eta konponketa-lanak, makinek beti ondo funtzionatzeko beharrezkoak direnak. Botilen bilketa eta birziklatze-enpresetara eramateko garraioa ere kostu esanguratsua da, baita makinak kokatzeko espazioengatik ordaindu beharreko tasak edo alokairuak ere. Ordainketa-sistemek komisioak edo kuotak dituzte, eta komunikazio eta publizitate kanpainen gure proiektua ezagutarazteko beste gastu nabarmen bat osatzen dute. Azkenik, sistema teknologikoa eguneratzeak eta hobetzeak ere inbertsio jarraitua eskatzen dute, erabiltzaileei esperientzia egokia eskaintzeko